

ZARR

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
22n. ZENBAKIA

BAGILLA
— 1979 —



LOIOLA'N

EUSKERAZAINTZA

ERRI-AKADEMIAREN
BATZARRA

(1979-IV-19-20)

*Olako eginbearrak artzera,
oitu zaite.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.*

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-
goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan
aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baiet-
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-
teko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-
kai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorki-
zun ederrago bat egitea gura dauala
adiazoteko bidea izango da.


Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-
gu.

Biar emen izango da.



BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA

Geroa, bertan daukagu.



NOR GARA GU?

ZER GARA GU?

EUSKQTARRAK GARA GU

Liburu garrantzitsuak asiera ederra ta gogoangarria izaten dabe. Gogoratu Don Quijote, edo Divina Comedia, edo Paraiso Perdido. Eta asiera orretan goiko laguntza eskatzen da sarritan, idazlan ori egokiro egiteko. Kristiñau danak Goteunaren laguntza eskatuko dau, Erroma'tarrak musen edo Parnaso'ko biztanleena.

Gure Orixe Aundiak be, bere EUSKALDUNAK poema ederra asi ebanean, onelan dei egin eban:

**ZATOZKIDA, GOI-ARNAS,
EIZU NEREKIN LAN,
ERRI BATEN ARNASA
MAMITU DEZADAN.
GEROAK ESAN BEZA:
«ERRI BAT IZAN ZAN»;
EDO-TA ATS EMAIOGUN
ONTAN IRAUN DEZAN.**

Erri bat izan zan eta gaurkoz irauten dau. Orregaitik, euskotarrak gara gu.

* * *

ERRITARRAK GARA GU

Eta erritarrak izatea, errian arduratuak izatea da; erri zea, gutariko bakotzak bere albokoagaz egiten dauan erria maitatzea ta indartzea.

Beste izakera batzutan erri aundia, goi-maillan batasuna dauan erria, maite dabe eta erritar bakoitxari ez jako jaramon aundirik egiten, baiña gu ez gara olakaok, erri zea maite dogu, erritarrak gara gu.

Alkartasuna bear dogu, erri bakarra gara. Baiña bekoakaz alkartuta, guztiok batera maillaka gorantza joten dogula.

Erri guztien berezitasunak, txikienak be bai, aberastasun lez, artzen doguz eta orrelan guztiok goaz aurrera pozez.

* *

EUSKALDUNAK GARA GU

Erriaren barru-barruan, eta ezaugarririk agirien lez, euskerea aurkitzen dogu. Orregaitik euskaldunak gara gu.

Baiña euskerea be ez da erri guztietan bardiña. Erri bakoitxak, onetan be, bere berezitasunak daukaz. Eta orreik kontuan artzen doguz. Iñork ez dagiala esan. «Gure euskerea txarra da, ez dau balio». Ez. Euskerearen erri-izkera guztiak dira onak eta aberatsak eta guztiak kontuan artu bearrekoak.

Euskotar guztiok euskerea ikasi bear genduke euskaldunak izateko, baiña erriak egiten dauan euskerea. Ori da errian sartzeko bidea, be-maillan sartzea.

Eta euskerea dakigunok, obeto ikasi, euskera-arloan jakitunagoak izan, eta euskereagaz batera gure jakintzea be eskuratu.

Gure izkuntzea bakoitxak bere eguneroko erabilketan, apaindu ta aberastu egin bear dogu.

Euskerearen batasuna, politikako batasunaren antzera, bearrezkoa da.

Orain artean ez dogu iñoz izan politikan

batasunik, ez dogu iñoz izan euskerearen batasun zeatzik eta bizi izan gara.

Baiña orain gure erriaren eta beste erri batzun alkartasuna, barruan eta inguruari begira, aundiagoa da.

Batasuna bear da.

Eta batasuna etorriko da erri zearen berezitasunak aiztuten ez ba'doguz.

Orrela ez ba'da, batasuna bai, baiña diktadurearena, jauntxukeriarena.

GURE-ERRIA

ZEREN ZERA

ADIMENA TA BIOTZA

Gizarteko jazoerak gizonaren emaitz edo f'utuak dira. Ta lurrean jazoten diran gauzak, ondo, balierazteko, gizona ezagutu ta aztertu bear da.

Giza-semeak almen baliotsu bi ditu bere bizi guztiaren oñarri ta ardatz bezela: Adimena-burua ta biotza.

A lmen onek gizonaren griña on edota txarren ta askatasunaren pentsuan dagoz.

Puntu onek gogoan eukirik, lurreko jazoeren argitasuna zerbait sortu daitekela deritzait.

BIDE ZUZENA

Filosofiko esaera da: Bere zergaitia ez dauan zerik, ez dago».

Eta ontan gauzak ikustea ba, zuzentasuna ontzat artzea da, ta zuzentza egarria guztiok dogu gure odol ta gogo barnean.

Personak bide orretatik joan bear leuke, berez, ortik joateko egina da-ta.

BIDE OKERRA

Baña, sarri, zuzenbidea itzi ta oker-bidea artzen da.

Okerbideak, nai mendietan dala, nai lan aldietan dala, bidaztiari oker aundiak dakartsoz.

Bide okerrak gizona ondamedira eroan leike bakar-dadean.

Gizonak errezoizko bidea, bertan bera, izten ba'dau, negurri gabeko ondoren ta desastreetara eldu leiteke, bai bere kaltean, ta bai, beste askoren ondamedian.

ADIBIDEA

Adibidez gauz oiek, obeto, ikusiko ditugu.

.Ni olerkaria ba'nintz, baserri bateko sagasti batera joango nintzake.

Ugezabak diraustanez, sagardi eder ori, len, ote-aldapa bat izan zan.

Baña sagarra artzeko lur egokia zala ikusirik, oteak erre, ta sakon atxurtu eban, ongarriak lurrera zabalduetz.

Ta gero, sagar landarak, giro bikaiñez jarri zituan lurrean.

Urterik urtera, gora-goraka, ta mardul etozen. Laster udabarriko lora ugariak udegoieneko burdikada sagar biurtu ziren.

ESAN-NAIA

Frutua agirian dago.

Lanak, izerdiak ta landara egokiak, irurak sortu eben baserritarrarentzat bizi-modu pozgarria. Atxur lane-tik ta landara onetik oteak eta larrak ezin urten eikeen.

Sagasti onen edertasuna lugin atxurketaren ondorena zan.

Lanaren zera, frutuen edertasuna zan.

ONDAMENA

Baña bestera be, bardin jazoten da.

Lengo aldian sagardi ederrak izan ziranak, gaur, sasi artean ittota ikusten ditugu.

Atxurak ukulluan baztertu ziran aurrerapidearen edo bizimoduaren izenean, gizonak lurreko ardurak albo batera bota zituen.

Beste alde batetik kanpoaren aurka somorro ta etsai asko dira.

A rerio guzti onen aurka gure sugatz eta lurrak ezin irauin dabe.

Lupuak jota bezela, gauz on asko jausi dira.

Penagarria, benetan.

Baña jausi dira.

Itziaren ondorena, berez, eriotzea.

Zereen zera ondamedia.

ASABAK

Onen parez, orain, aitatzera noan au, sagar lorea ez da.

Au gertaera lazgarria da.

Kateien josirikoa.

Ta urteen joan etorrian, ainbeste min emon daben ezkeroz, euskaldunaren bizia barneraño zaurituta dago.

Euskaldunak bere lurraldea, askatasuna, jaubetasuna ta erri legeak eredugarizkoak eukazan.

Euskalerriko legeak, elkartasunean egiñak, erri berberaren oiturak ziran.

jende guztiaren artean jaiio, bizi, ta ondo, onartuak zirenak. Gure Lege Zarra erri berberaren pentsabide ta biotzaren muiña zan.

Era ortan, bizi ziran gure asabak.

Lana ta bakea ziran euren amets guztia, berez, giza eskubidez bezela arturiko lurraldean.

ZAPALKUNTZA

Euskal alderdi guztiei berezko askatasun ori kendu eusen.

Geroztik, beti, erabili izan dabe gure erria azpian, gogorkerietan, itzez, eta burdin arteetan.

Gure izkuntzak ere, berari berez, zor jakon bidean, itz egiteko eskubiderik, sarri, ez dau izan Amaika bider, euskeldun umeak lotsatuak eta zigortuak izan dira eskola aldeetan.

Euskaldunak ez dau izan eskubiderik, berak dakian izkuntzan, bere burua zaintzeko.

Au ez al da zapalduta bizi izatea?

Au ez al da erri bateri emon nai izan jakon eriotza...?

Ta ez lagunei bakarrik. Baso, mendi, itxaso, lurraren mamin, ondasun ta bere inguru guztiak osotzen eben euskaldunen askatasun lurra, izkuntzarik jakintsuenagaz batean.

BAKE-BIDEA

Sabinek, lenen, oartu ta ikusi eban, barren-barrendik, noraiñokoa zan Euzkadi'ren ondamedia ta negarra.

Onetarako eskubiderik ez dago, bere baitan, esan eban, ta erria argitu nai izan eban.

Ta azkenez ere, erriaren arazoak ekarri eutsoen neke ta kartzela garratzak, ta ondoren, eriotzea.

Gaurko jazoera guztien sustraia, or, dago.

Aundia izan da erriaren nekea, gogorra gizonaren eskua gure erriaren gain.

Orain, konturatu gizonak, guztiok epaitu bear gaituan Egilleak, zer nai daben. Lenengo, zuzentasuna Euzka-di'ren alde.

Erri mindu onen eskubideen zuzentasuna.

Ta ondoren bakea.

SOLOZABAL'dar Paulin'ek

ARTETA'REN GERNIKA» AIZTUTA?

GOMUTATZEN

Gernika, egazkiñak triskindu ta erre egin ebeneko 42'gn. urteurrena izan da oraintsu.

Eta orain urte bi dala, 1977'an, be-
rogei urte luze barru, guztien aurrean,
leenengoz eta Gernika bertan, deada-
rrez esan zan 1937'gnek arratsalde
baltz aren egilleek nortzuk izan ziran
eta zer egin eben.

Egia, argi ta gora jasoa izan zan,
orduko guzurbaltz aren gainetik.

PICASSO'RENA

Bonbaketa areri oroimen jai orreik
dirala ta, Picasso'ren «Guernica» lauki
entzutetsua, aboz, idatziz, telebixlaz
erabili da: Picasso'ren sendiari lau-
kiaren eskakizuna bere egin eutson
Gernika'ko erriak.

Eta aurtan, Gernika'ko Uda| barriak,
erri-udalak, eskakizun ori barrizturik,
berea egin dau.

Ez da gitxiagorako: Gernika'ri egin-
dako giza-deabrukeria, lauki orren
bitartez munduan ezagun geratu zala
esan geinke ta.

ARTETA'RENA?

Baiña, guztiz arrigarria, beste au
da: zer dala-ta, Arteta'ren «Gernika»
aitatu ez?...

Gure artean, ia aspalditik, Picasso'ren
«Guernica», negurri guztietan saltzen
da ta aldizkarietan agertu.

Baiña, Arteta'ren «Gernika», iñoiz
izan danik bere ez!...

AUÑAMENDI'N

Nik, «Auñamendi» enziklopedian iku-
si dot bakarrik: Negurri txikian dakar.

Oraintsuago argitaldua izan baltz,
liburu ori eta ez 1971'In, aundiago
ipiñiko eben eta zertzelada geiagogaz,
zi ure ti k.

Diñoenez, «Gernika» pitxi ori, beste
libururen baten be agertzen ei da;
baiña ez dot aurkitu.

GALDUA

Lauki ori, 'Arteta'k Euzkadi'ko Jaur-
laritza'ren eginuz egin ei eban, 1937'an,
Gernika birrindu ebenean.

Eta, auxa aundia: Paris'era alemanak
sartu ziranean, 1940'an, apurtu edo
galdu egin ei zan.

«Gernika» orren ezagertzearen erru-
dun, barriro bere alernanak izan ete
ziran ba?

AZALPENA

Azken triste orrek, laukia ospetsua-
gotu egin bear ebala dirudi: tamalez,
ez da baiña olan izan... Etxeko gauzak
bartzerteko erreztasuna, ala zer?...

Gai aldetik, Arteta'ren «Gernika»,
ertilari ez garanok be, iñork azaldu
barik ulertzen doguna da: barrenean,
etxeak eta zugatz bat aputluta; urrean,
ama bat bere umetxoagaz, biak ilda
lurrean; eta euren aurrean, gizon bat
belaniko, otoitzean...

ARTETA NOK DAN

Arteta, euskal margolarietarik one-
ne tar ikoa da.

Bilbotarra, 1879'an jaioa: ain zuzen'
be, aurtengo Gabonillan beteko da,
bere 100'gn jaiotz-ut tea.

Arteta, 1936'a baiño jecnagotik os-
petsua zana, gure gudateko gaiak mar-
goztuten ospetsuago egin zan.

Bere ertilari-sasoirik onenean, 1940
gnean, atzerrian, Mexico'n ij zan,
trafiku-ezbear batez.

Eta orduko Bilbo'ko izparringiek be,
bere arte-lanari sekulako gorantzak
egin eutsezan.

ZABALDU-BEARRA

Arteta, margolari aundi ta apala;
euskal senez beteriko margolatia!

Arteta berak, eta baita Gernika'ko
erriak eta Euskalerrriak be, merezi dabe
bai, «Gernika» lauki ori zabaltzea!

Arteta'ren «Gernika», «eman-da za-
bal zazu munduan frutua!»...

MAITENA

JOKO ALDI ELDUA

BAKARRIK

*Ona emen Heinz Remplein jakitunaren idazlan baten
izenpurua.*

*Joan dan illean ikusten genduaneez, lau urterarte
umeak ez dau joko eldurik.*

*Bere inguruan inor izan bear danik be ez da kontu-
ratzen.*

*Oraindik aurrera, ostera, bai; Lau urterarteko jolasak
elburu berezi bat izango dabe; gauzen neurriak, margoak,
goxotasuna edo laztasuna, eta abar eta abar ikasi.*

Jolas-mota oneitan bera bakarrik da buru.

*Lau urtetik aurrera, ostera, beste adiskide batzuekaz
jolastutzen be ikasiko dau.*

Eta, beraz, bere elburuak beste batzuk dira.

ZERGAITIAK

*Lautik zazpi urterarteko aldiari, ba, «joko eldualdia»
deituko dautsogu.*

*Eta aldi onetan umeak izaten dauan bereiztasun bat
aitatuko dogu: bere jolasen oiñarría ZERGAITIAK dira.*

Urte oneitan umea itaun utsa dogu.

Erantzuna dakianean bertan be itaundu egiten dau.

Sarritan nekegarri biurtzeraiño eltzen da.

Zer egin? Erantzun.

ERANTZUN!

*Aldi onetan itaunak baiño erantzunak eta eranlzu-
kerak garrantzi geiago dabe.*

*Umeak eztabaidak dauz; ziurtasun falta bat sentitzen.
dan.*

Bere egoeratik urtetzeko, itaunari emoten dautso.

*Bere nortasuna sendotzeko, bere eztabaidak aldentutze-
ko eta bere bildurrak kentzeko, gure betebearra erantzun-
tea da.*

*Jakiña iraupen aundia bear dana; gure erantzunak
berak bear dauazan erakoak ez ba'dira, ez dautsogu gauza
aundirik argituko, edo argitzen ba'dautsogu, ez dogu
beragan ziurtasun aundirik lortuko.*

Eta ziurtasun barik ezin umerik eldu.

GERORAKO

*Osterako be urte oneik garrantzi berezi bat izaten dabe.
Sarritan lautik zaz^Pi urterarteko zergaiti-aldiak geroko
kultura egarria sortzeko aldi bat doguz.*

*Gure erantzunak, beragan ziurtasuna lortuaz, eldulasun
bat emon ba'dautsoe, berez zergaitiak aurrera jarraitiko
dabe.*

*Bizitzan eta ikasketetan ulertuko ez dauazan gai asko
edo gauza asko izango dira.*

Itaun asko egin bearra izango dau.

*Baiña txikitatik «joko eldurako» gertatzen ez ba'dogu,
gero be uts bardiñaz jarraituko dau.*

*Eta nork jakin sarritan gurasoak eta irakasleak onetan
galbide ez garan?*

J. L.

EZIKETEA

GURE BULTZIAK

1.979'ko orrillaren 6'an, 50 urte bete ziran Durango'ko bultzian* argi-indarra jarri ebela.

Ori dala-ta, Bilbo'ko «Amigos del Ferrocarril» alkarteak txango* berezi bat antolatu eban Durango'raño, antxiñako tren batean.

Tren au lurrunezko* makiña bat, notiñak eroateko iru bagoi (lenengo, irugarren eta «salon» maillakoak) eta bildumak edo «paqueteak» eroateko beste bagoi batek osatzen eben.

* * *

Goizeko baderatzi ta erdie-tan urten eban Atxuri'ko geltokitik eta Zornotzan ura artu ondoren Durangora eldu zan, goizeko amaikak eta ogeian.

Jendea ugari ikusi genduan burnibide* ondoan, argazkiak ataritzen eta Durango'n eundaka* batzuk batu ziran geltokian.

* * *

Makiñak «Gipuzkoa» eban izena ta 1.892 urtekoa zan, oso ondo zainduta egoane ta makiñistak esan eban lez : oso ondo «portau» zan.

Tren berezi onetan joan ziranak geienak len aipatu dogun alkartekoak ziran eta baita gizon berezi batzuk ere.

Durango'raño joan - etorria egiteagatik 300 pts. ordaindu ebezan 3'garren maillan, 500 lenengoan eta 700 salon maillan.

* * *

«AMIGOS DEL FERROCARRIL» ALKARTEA

Durango'ko geltokian alkarte ontako lagun batzukaz berba egin genduan alkarteari buruz.

Alkarte au Bailen kalean dago l'goan Santander'ko geltokian.

100 bat bazkide* dira ta urteko zaria* 600 pezetakoa da 21 urte bete arte ta gero 1.000 pesetakoa, ba-dagoz bazkide berezi batzuk 1.500 peseta ordaintzen dabezanak.

* * *

Durangora eroan eben bultzi au eurena da ta urtean zear Kasilla'ko geltokian daukie gord eta.

Noizean bein onelako txango batzuk egiten dabez, Durango'ko au egin baño len, Balmaseda'ra egin eben beste bat orain 9 bat illabete.

* * *

BULTZI BARRIAK

Ondoren Durango'ko «ko-txeetara» joan giñan laster jarriko daben tren berriak ikustera.

Egia esan arrituta gelditu giñan.

Alde batera «kotxera» bariak ikustean, oso egokiak dira, ta beste alde batetik bultzi bariak oso itxura onekoak diralako.

Bultzi onek kanpotik oso oraingoak dira eta barrutik ederrak eta erosoak benetan: lurrean «sintasol» edo antzeko zerbait, ateak, berez zabaltzen ta izten diranak, jesarlekuak oso bigunak alde batean pertsona birentzat eta bestean betentzat bakarrik, autsontziak*, leioetan leio-zapi ederrak, irolak* be oso ederrak eta bagoi batetik bestera igarotzeko «fuelleak» berruko argiak, florescenteak, eta abar.

* * *

Baña gure barruan zalantza* bat dogu : Bultzi barri onek asten jdiranean «errespetatuko» dauz endeak?



Edo ormetan idazten, jesarlekuak labanaz apurtzen eta abar asiko dira?

Ez dakigu, baña bildur gara.

* * *

EDERGALLUAK

Durango'ko geltokian lurrunezko beste makiña bi ikusi genduzan, bata «Aurrera» izenekoa guztiz ondo zainduta ta bestea Zugaztieta izena dauana, azkenengo au, ostera, oso galduta dago makiña au edergallu* bat lez Gernika'ra eroateko ta asmoa ei egoan.

* * *

ETORKIZUNA

Sarritan esan dogu ta gaur barriz esango dogu, Euskalerriak azkenengo urte oneitan bultzi asko galdu dauazala, gasoliñari buruz entzuten diran gauzak egiak ba'dira oldoztuteko* ordua eldu jaku.

Gure ustez Bultziak Euskalerrian etorkizun aundia dau.

IBARRA'tar Bernardo

GAUZA LABURRAK

Laster udea datorkigu ta urteko sasoi* polit onegaz batera euskera ikasten egon garanok oporrak artuko doguz, indarra egin ondoren atsedena bearrezkoa dotu ta...

Gañera il oneitan, urtean zear ikasi doguna erabiltzeko aukerea izango dogu; bai gure lagunakaz, Euskalerritik egiten doguzan ibillaldietan eta gure baserrietan edo udako ikastaro berezietan.

Lortu bear doguna zera da: 4 illabete oneik alperrik ez emotea.

* * *


Soria'ko espetxean egondako bateri, ango-gora-bera batzuk entzuteko aukerea izan dogu.

Poliziaok sarritan «probokatzan» dabez espetxeratu ta dagozanak.

Senitarteko bat ikusi baño len eta gero, billoztu egin bear dira.

Orain illabete dala aurkitu eben zuloa, euskaldunak ara joan baño len ba-egoan.

Bien bitartean eskuma-eskumako espetxeratuak oporrak lortzen dabez iges egiteko*.



Auxe da eskubideen bardingintasuna !

* * *

Dakizuen lez, Gaztelugatxe'ko jon Deunaren base-liza*, igaz, lotsabako batzuk erre egin eben.

Jaungoikoari esker, laster guztiz barriztuta ikusteko era izango dogu, orretarako Bizkaiko «enpresa» batzuk ta

bizkaitar jator mordo batek lagundu dabe.

* * *

Orrialde* bi onek euskaldun barri guztiei zabalik dagoz, zu «ZER» aldizkari onen irakurle ba'zara ta gañera euskaldunbarria, bialdu zure idazlana txoko onetara, dannon artean gero ta obeto atarako dogu gure «ZER» au. Aurrera!

ZANGRONIZ

IZKI - NASTEA

A	P	O	K	U	L	L	O	R	A	Z	I	S	T	E
J	O	L	A	S	D	O	T	X	U	T	X	A	K	A
E	R	R	A	M	U	J	O	S	T	U	B	I	M	P
B	R	E	I	S	B	I	G	A	A	R	R	R	O	D
O	A	T	E	X	A	U	A	L	R	I	Ñ	P	R	U
I	M	E	D	A	E	M	E	L	K	U	I	E	R	B
T	S	O	T	X	D	A	T	I	I	M	S	U	L	L
U	I	P	G	I	U	X	Ñ	O	A	R	O	K	E	L
Z	U	T	E	E	D	O	S	I	B	R	A	Z	T	T
G	M	A	B	L	L	I	A	B	E	G	E	A	T	Z
O	I	Ñ	E	L	L	B	E	T	Z	I	Ñ	D	K	I

Izki - naste onetan, bost idazle ospetsuren izenak agiri dira. Zeintzuk? Aurkitzen ezpadozuz ikus azkenengo orrialdean.

IZTEGIA

Bultzi	=	tren
txango	=	excursión
hurrin	=	vapor
burnibide	=	vía
eundaka	=	ciento
bazkide	=	socio
urteko zaria	=	cuota anual
autsontzi	=	cenicero
ivola	=	retrete
zalantza	=	duda
edergaltu	=	adorno
oldoztu	=	pensar
sasoi	=	época
atseden	=	descanso
iges egin	=	escapar
baseliza	=	ermita
orrialde	=	página

«GIPUZKOA» FILMA

Donosti'ko C. A. M. edo Aurrezki Kutxa Udaldararen babespean sorturikoa dogu GIPUZKOA film erritar au.

Argibidezko dokumental saillean kokatu geinke bera. Iru urteko lan zezatzak bear izan ditu alik ondoen gertatzeko; azterzale, ikerzale ta tokian tokiko gertakizunen arduradunak esku artzen ebela ziur asko.

Bere luzeerea ia lau ordukoa da.

Egillea guztiz ezaguna dogun Pio Caro Baroja jauna.

Laguntzaille Julio bere anaia.

Onularirik ospetsuenak Jose Miguel Barandiaran, Manuel Lekuona, Jesus Altuna, Migel Pelay Orozko ta abar luzexo bat.

Argibide baliotsuak emon dautsoez benetane gilleari.

Pelikulan urtenikoak be asko dira. Euren artean eta besteak beste, :Jesus Altuna, Barandiaran, «Basarri», Julio Caro Baroja, Manuel Laborde, Luis Mitxelena. Ta orrez gain, Basterretxea, Txillida, ta Oteiza zizelkari punterengoak.

Zortzi zatitan bananduta dago.

Atalik garrantzitsuenen izenak: Gizona, Arria, Belardiak eta iriak ei dira.

Kultur-gai orokorrak daurkiguz Film onetan. Ze nolako bizimodua len bateko gipuzkoarrak eroen ta aldien aldakuntzaz ta urteen joan-etorriaz, egungo egunean eurak daroen.

EUSKALDUN ZARRA

Lengoa begiztatuz, berein oitura, usadio, lan-arau, jai ospagarri, eleiz-arau ta gizarte jardunbide, betiko alde egin euskuenak ziñez.

Ortan baiña, zati aundi baten GIPUZKOA pelikulearen balio apartekoa datza, ots: aspaldi bateko gipuzkoar kultur altxor oneik, «zinea» bitarteko, gure begi aurrean bizitasun osoz aurkezlea.

Ziñegille taldeak bestalde, tankeraz ta zurki darabilen gaiak.

Eresia Bello Portu'k aukeratua dogu ta ots ta soiñuen ezartze ta tinkatze arduratsua Iñaki Beobide'ri zor jakoz.

Ez zan film onen jomugea C. A. M.'ren mende urrenean gipuzkoar eta euskal erriaren arazo ta problematika osoa jakin eraztea; eta bai, tantaka legez, ta txorta txiki apaindu baten gure askatasun-gurari biziak eta gero obeago baten itxaropen setsua, polikipoliki ba'da be, ikusle oroi aldarrikatzea. Ba-dau bai gure erriak ori ta geiago merezi, egitan.

Oso ondo lortuak doguz bertan inudi ta agerbide batzuk, esaterako negu gogorra adierazi oi dauskuenak, baserriko laiaketa-lanak eta gure arrantzaleen bokarta-arrantzua. Aurrez-aurre ta margo bizietan agertzen dira olakoak.

* *

ASMO BARRIAK

Pio Caro Baroja'ren itzak: «Gipuzkoatzaz egin dodan dokumental au niretzat Euskal Erriaren antzertian, drama, oroko bat lez da. Geroago Bizkai'ko jaurre-riari buruz edesti labur bat egiteko asmoa dot. Irugarrenez, lendik eginda ba-dago be, Naparra'ri buruzko «Lau-urte-aroak» dokumentala. Azkenengo biak, bata Araba'ri ta bestea Iparraldeko Euskalerrria'ri buruz izango dira».

«Guzti au jadetsi ezkerro, darrai, Euskalerriatzaz neukan lan-gala nire aldetik beintzat guztiz osoturikoa lez uste izan eta on-etsiko dot. Baita Euskalerrriaren aldetik be, nik uste».

GIPUZKOA film au lenengo Gipuzkoa'ko uri ta errietan edatuko da. Ondoren, dirasuskuenez, Bizkaia'n eta beste ingurumarietako lurraldeetan. Ia aurten ikusi al dogun.

ARREGI'tar Josu'k

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKALERRIAN UDAKO IKASTAROA BIZKAIERAZ

GARAGARRILLAN (UZTAILLAN) UDAKO IKASTARO BAT IZANGO DA EUSKERAZALEAK ALKARTEAN, LENENGO, BIGARREN ETA IRUGARREN MALLAN.

EGUNAK: ASTELEN, ASTEARTE, EGUASTEN ETA EGUENETAN

ORDUA: ARRATSALDEKO BOSTETATIK ZAZPIRETARA EDO ZAZPIRETATIK BEDERATZIETARA

SALNEURRIA: 1.000 PZTA.

IZENA EMOTOKO TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14 - 2

BILBO.

ARRATSALDEKO ZORTZIRETATIK AUPRERA

URRUTIZKIÑA 423.53.22



CURSILLO DE VERANO HASTA TERCER NIVEL E INICIACION DE EUSKERA VIZCAINO

FECHA: JULIO DIAS: LUNES, MARTES, MIERCOLES Y JUEVES

HORA: DE 5 A 7 O DE 7 A 9 DE LA TARDE MATRICULA: 1.000 PTAS.

INSCRIPCIONES EN: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14 - 2 BILBAO.

A PARTIR DE LAS 8 DE LA TARDE

TELEFONO 423.53.22

GUK EUSKERAZ EGITEN DOGU ETA ZUK ?

MIKE L'en oroipenez

zanaren, izangokoarn Bana

IDATZ ETA MINTZ

Idatz eta Mintz banandu ebazanean, il egin ziran, bata gogortu eta bestea usteldu, desegin. Orduan euran aita mututu eta andik lasterrean il, eta Izadiaren orfeoi nabarmena be ixildu egin zan.

BIZIRIK

Zeuren izan zara Erranbide eta orain ez zagoz gure artean, baiña bizirik dago zure gogo gure biotzetan.

Ez, ez dira il oraindiño ez Idatz, ez Mintz, bizirik, dagoz, eta eurak bizirik dagozan artean Erranbide be bizirik egongo da.

ALKARTU

Gure errian dagozan Idatz eta Mintz guztiak batutea izan da zure asmoa, Idatz bat eta Mintz bat egiteko.

Baiña edozelako Idatz edo edozelako Mintz ez ziran izango.

Lenengo gure inguran, gure etxeetan, bizkaitar euskaldun guztien etxeetan dagozan Idatz eta Mintz, batez be oneik, ezagutu egin bear ziran; gero beste errialde batekoak, eta gero besteetakoak, danak ezagutu gero danakaz bat egiteko.

Zuk alde egin dozu, baiña zure asmoa ez da asmo geratuko, ez zara bakarrik egon, laguntzaile ta jarraitzaile asko izan dozuz, oneik amaituko dabe zure lana!

ITURRI LEGORTUA

Bai, gure euskerak oraindiño iturri asko daukaz, iturri urtsuak gainera, baiña zu barik orretariko iturri bat agortu egin da, urik geien emoten egon danean!

Zenbat ur emongo eban iturri orrek oraindiño!

Ta zelango ura! Goxo-goxoa, ziur nago.


ITURRI BARRIAK

Baiña iturria bakarrik ez zara izan, beste iturri batzuz zabaltzaile be izan zara.

Batzuk urtsuak izango dira, beste batzuk ez orren beste, baiña orixe zan zure asmoa, iturriak zabaldu, ura inguru guztietara eldu dedin, dana gure euskeraren uragaz bustita itziririk.

AGUR OLERKIA

Omenaldi txikitxo au, zeuk Lauaxeta'ri egindako olerki bategaz gure neuke amaitu.



Lauaxeta, zu lez bizitzaren lorean joan san, orain biok alkarragaz egongo zariela uste dot.

Zaindu egizue euskeraren bidea or goitik.

LAUAXETA'RI

Zidar zuriaren
bide berriak,
arrats beheraren
urre gorriak.
Lehenaren garrak
barnean, lehar:
berritu zaharrak,
berriak eder.
Eder, berri, zahar,
nire atsegin;
zure urre-zidar
beti nirekin.
Odolezko lainoz
hildako arrats:
egunsentiko poz
bizi aberats.

ELERTIA

ELERTIA

Edcr da noznai euskal liburu zarrak eskuratzea. Ez gara erri aundi beste naziño batzukaz bardiñean ezkeru.

Gure literatura bee ez da orren azia, ez cla mukuru aundikoa, apala baiño; bere maillan, alan be, ez dozu ain pitiña: ondo aztertu, sakondu ta ikasi ba'dagigu berau, ba-dogu zerbait, cta au pozgarri jaku beti be.

Azken urte-amarkun batzuk dirala, Ian gogorra osotu cia ortan, eta geuk uste baiño be bitxi geiago agertu jaku bazterretan.

FELIPE YURRAMENDI'K

Nik, esate baterako, ezagun neban, euskal liburu-tegi azietan ikusita, gure literaturan naiko ospetsu dan liburu txanbelin bat: «Hazparneko Kalbarioa» deritxona.

Baiña ez neban iñoiz berau astitsu irakurrita aztertzeko besteko betarik izan.

Eta lengo baten, usterik bage, zelan eskuetan jarri eustan berau neure acliskide on Felipe Yurramendi, euskaltzale zintzoak.

KANTIKAK

Ba-neban berau irakurteko gogoia, ta egunokaz irakurri clot benetako atsegiñaz.

Eta orain zuri be, irakurle, nik ortan izan dodan pozaren barri emon nai dautzut.

Itz-lauz (prosaz) eta bertsoz egina cia liburu txiki baizen mamintsu au.

Baiona'n argitaratu zan 1892'an, eta 483 orrialde ditu.

Mclean erabilteko moduan egiña da, azal dotoreaz. Titulu osoa onela dau: «Hazparneko Kalbarioa eta Kantika eskuarak beren aireekin».

IZLARIAK

Zer dan berau?

Tituluak diñona, Hazparneko Kalbarioa ta abesti-sail eder bat, musika ta guzti.

Lenengo zatia (300 orrialde) prosazkoa cia, ta bigarrena (183 orrialde) bertsozkoa.

Jai bat eratu zan Hazparne'n, 1890'ko iraillean, «Kalbarioko Besta» eritxona; zortzi eguneko jaiia nunbait.

Azkenengo egunak gora ikaragarria izango eban batez be, eta ortarako gertakuntza bear.

Ori gogotan izanik, zortzi eguneko erretiro edo gogo-bakarraldia egin zan, eleizkizun eicirakin.

Eleizkizunotan orduko eleiz izlaririk ederrenetarik bostek esku artu eben,

Oncik ziran: Aita Arbelbicle, jaun Lapeire, jaun Zanzincna, jaun Xoribit, jaun Beltzagi, jaun Abbadie ta aita Bastre.

* *

Gai oneik azaldu zituen:

Arbelbide'k «Kalbarioa»-ri zeaztasun batzuk.

KANT

Lapeire'k «Jesus Olibeteko baratzean» eta «Jesus Judasek saldua».

Zanzinena'k «Jesus Kaifasek kondenatzen du» ta «Jesus Pilatusen tribunalean».

Xoribit'ek, «Jesus azotatua eta arantzaz koroatua».

Beltzagi'k, «Pasione sainduko dolore neurrigabeak».

Abbadie'k «Jesus Kurutzeari itzatua» eta «Ama-Birjiñaren doloreak».

Eta aita Bastre, beneclitarren abatak, «Kalbario gaineko predikua», ango Arroltze-mendiko tontorrean, jentetza ikaragarriaren aurrean egin eban itzaldia.

IRARKOLARA

Liburu orretan datoz itzaldi guztiok, Aita arbelbide mixiolariak irarkolara emonak.

Berak diñoanez, itzez-itzez, Hazperneko elizan eta Arroltze-mendian entzun ziran lez emonda, ain zuzen be.

Ospe aunditan egiña izan zan jaiia, ta merezi eben orduko lanak, itzaldiak eta kantikak argitara emotea.

Onela diño Aita Arbelbide'k.

«Zinez, xoragarri zen Iazparneko kalbarioaren besta hori. Ez daiteke erran —esan— zer lehiarekin jendeak zortzi egunez jarraiki zekizkion Jainkoaren hitzari; eta gero zer oste jente— handitan sakramenduetarat hurbildu —urreratu— diren, eta azkenik nola Buruilaran —irailaren— hamalaua izan den, Euskal-Herriak eg unclaino ikusi duen bestarik ederrera».

GAIK

Itzaldi orreitzaz bestalde, liburu oretan claukazuz kantika asko, zar eta barri, «eclerrenatarik».

Baita, osogarrri lez, mezako otoitzak, Kurutzearen bidea, otoitz bereziak, eta abar.

Kantikak, batzuk Kurutzearan ooretan egiñak dira, beste batzuk erri-mixiñoetan abestuteko, lenengo Jaunartzetan erabilteko, Sakramentu santuarentzat, Biotz-Deunaren cleduz, Andra Mariaren omenezkoak, jai berezi batzuctarakoak. Errosarioko amabost misterioak, Gabon-karta edo Noelak, eta otoitz ardurako batzuk.

Liburu betea, esku-leun ago-goxoz osotua. Euskera ezti, errez eta jariodunean.

GABONETAKOAK

Kantikai begiraturuz, ona zatiño batzuk, or-emenka j asoak.

Bost datoz Kurutzeari omenez, Hazparneko Kalbarioa lenengoz egin zanean-eta abestuatakoak. «Jesus onaren Bihotz» cleritxonaren bigarren eta irugarren aapalcliak onela:

I K A K

jesu-Krřstoren / odolak zaitu
Kalbarioan gorritu:
deusek geroztik / munduan ez du
Zuk bezenbat dirdiratu.
01 Ku'utzea! / oi Kurutzea!
Kurutze saildu mailea!

Bertzorduz hemen / etsai gaixtoa
Zutaz izan zen ehoa.
Zure indarra / da Jainkozkoa,
deusek ezin hautsizkoa.
01 Kurutzea! / oi Kurutzea!
Kurutze saildu mailea!

MIXIÑOETAKOAK

Ogetamasei dozuz *Mixiitoetakoak*, bata beste baizen apaiañak; Biar eta egoki taxutuak.

Izan be orrela dozuz euskal erriak gizaldiz gizaldi erabillitako mixiño-abestiak, eder, sakon, sentimentuz josiak.

Liburu ontako sail au egiaz dozu bikaiña.

Bear be ba-ziran era ortako kantak.

Gure erria, garizuma ta Aste Santuz baitik bat, aspertu barik joan izan oi da elizara, Jaunaren itza entzutera.

Gaur bertan orrela dagi.

Aurtengo Aste Santuz Artia'n, Erreñozar-pean, egon nintzan autortu ta elizkizunetako itzaldiak egiten. Erriak eta koruak, bai sentimentu aundiz abestu ebezala egun santu areitan eliz-kantak!

MUNDU ZORO

Gizona geienetan gorantza barik, beerantza begira dagon arren, beronen egiazko aberria ez da au, goikoa baiño. Mundu zoroa itxa ta, bee-izatez gairi egokiturik, egoki jako zerurantz begiak zuzentzea. Onela diñosku liburuan «Mundu zoro» asten dan aapaldiak:

*Nirndu zo'o, enganioz betea,
iduki nauk endikotz gatetan;
lausengari, enganakor trixtea,
atzeman nauk, eta zenbatetan!*

*Non zen bada neure adimendua,
bizitzean plazer galkorretan?
Ikusten dot ene zoramendua,
eta nago auhen minenetan.*

ERIoTZA

Gure egunak, bai, laburrak izan. Jaiotzatik asten gara obira urreratzen; eriotzak, guk nai-ezik be, garoaz mundutik.

Or irudia, baratzeke lora: gaur ezer ba'da, biar ezer ez: gure bizia orrela da ondutzen.

Ez esan, gazte, erio zugandik urrin danik; laster cia lur-barruan, bizi uste dana; ez dakigu gure azken-ordua. Olerkariak ederto:

*Eriok nihok ez du / munduan urril,-ari;
bakotxari nahi dio, / bere mugan yezarri;
xumeak eta handiak / ditu bere-ganatzen,
guziak, arte laburrez, / herrautsetan ezartzen.*

*Zerantzat ginluzke, beraz, / munduko fagorea/c'
Laster utzi behar diren / ontasnm, ohoreak?
Arbuia dezagun lurra, / eta bila zerua;
han du bakarrik au'kitzen / biholzak deskaatsua.*

ZIGORRA

Gaur edozein ume-zorrik be botako dautzu: «Ez dago inpernurik!» Ez ete? Liburu santuak, alan be. Urn...!

Hazparneko mixiolariak ba-eban fedea Kristoren itzetan.

Onan «Nigar marrasketan» deritxon kantikak, irugarren eta laugarren aapalclietan :

*!3a1 hemen hanpean,
:erurat gintezenak,
n! tormenta pean,
/loakabe garenak,
gaude; eta hala
menderen mendetan
'gonen garela
jakin nigar hautan!*

*Zer ondore duten
gore banitateek!
Zertara/ gaituzten
gore libertateek!
Atsegin zik'nak
la/-el zitzaizkigun;
so lama samina/c
orai irextzagun.*

GERO?

Samintegi ortarako bideak jagon bear gaure burua.

Inguruko giroak lillurazi oi gaitu sarri, ingurua argiak lez.

Zur ta erne jokatzeta, beti jaku bidezko.

Kristok erakutsi bideari ekin dagiogun.

Ez biarko itxi gauzak: txoriak eguncro oi dau kan ta.

Oroi Axular'en «Gero», gaur egin al dozuna biarko ez izteko guztiok aolkatuz.

Ona Hazparneko kantak:

*Kristau gazte maiteak, / zureztat naiz m'ulzo,
adi zazu gogotik / zenbait solos gozo;
zer nako bidea / zaitzu irakasten;
eman zaitte gogotik / zu haren ikasten.
Goiz danik behar duzu / maitatu jainkoa
naki ba'dazu izan / betiko gozoa.
Gazte gaixtoak dire / gehienak galtzen;
aldiz gazte prestuak / zeruaz gozatzen.
Denboren egilea / bide da jainkoa,
adin guzien ere / jabe egiazkoa:
hala gare harenak / gaztetasunean,
nola ezinrlu eta / zahar gateman.
Hortik ba-rlakusagu / gore egin bidea,
iduki behar dogun bizilze moldea:
jainkoa behar dugo orok zerbaftzatu,
Haren lege saildua beti begiratu.*

AMAGANA

Azkenez, eguzki beroegitan kerizpe gozo lez, \ndra Mariaren begitarte ezitia; arek zainduko zaitu arrisku guztitik, eta a baita dokezu, zerurako bidean, kma samur, laguntzaille ernea.

Negar dagizula? Ama dozu, ta legortuko ciauxtuz legar-malkoak.

Esaiozu naznai:

*!1 noiz zaitut, idarturir nigarrak
k usiren, ene Ama ona?
'raganik ene lanjer guziak,
r! noiz naiz bilduren zugarat?*

*A! Maria, zuk, ontsa ba-dakizu
desir Nick zoinen /,-artsu diren!
Otoi, Ama, zu ganat dei/ nezazu
bainan, otoi, lehen baino lehen.*

SOZO - GOZO

Era onetakoak dozuz «Hazparneko Kalbarioa» deritxon liburu bikaiñaean, Aita Alberbide misionesta, aun Lapeire kalonje ta Kanteprazeko omoniera, aun Zanzinena Katedraleko bikario, jaun Xoribit 'atedraleko kalonje, jaun Abbadie Larresoro'ko burn-:agi ta Aita Bastre beneclitarren Abadearen itzalclien >stean, datoza kantikak.

Neurriz ta doiñuz bizi-bizi egiñak.

Atsegin aunditan irakurten dira.

Zuni be, irakurle, iñoiz erarik baldin ba'dozu, neuk aiñako atsegin eta pozez irakurri daizula opa lautzut, mugaz bcstaldeko euskeran, baxe-nabarrez ■soturiko liburu jakingarri auxe.

AITA ONAINDIA

AURRESKUA

Aureskuari buruz, Tomas Egileor jaunak auxe esan eban: Berak esaten ebana Mendexa'ko baserriar zar bateri entzun eutsala. Ona emen agerpena:

«Auresku dantzea, bere neurkerea jira-biraka jarraituz, oillarburrukea dogu. Aureskuaren bigarren zatia be, atzera ta aurrera, artazika ta gora-goraka, oillar irabazlearen joko-antzekoa da. Iru-garrena, zortziko esaten jakona, oillar-burruka orren azken garaipena dala esan lei».

Mundu guztiko dantzak, irutarikoak izaten dira: Erlejiño-dantzak, guda-dantzak eta maitatzailleenak. Zalantza barik, aureskua irugarren sail orretakoa da.

Dantzetan abereak antzesten dirala, batez be egaztiak, izan bear dogu kontuan. Adibidez, Aztekar-tean arranoa, Kaukaso-aldean indi oilloa edo «pavo»a, eta beste erri batzutan artza, otsoa, kanguroa...

Orduan, aureskua bere jatorriz oillar-dantza izatea . ez da arritzekoa.

Aita Donosti'k, zozoaren oiturak ikusita, zozo-dantza asmau eban.

Gallop «The Book of the Basques» liburuaren egilleak, idazti onetan Euskalerriko eresi, doiñu, abesti ta agozko bertsoari buruz ikaspide sakonak emoten ditu.

Bere adiskide dan Violet Alfred British Folklore Society'ren lendakariagaz, idatzi eban liburu entzutetsua «The dances of the World» munduko dantzak.


Egille bi oneik, euskotar bategaz batera, auxe iñoen:

«Aureskua, oillar-dantza interesgari baten antzeskuntza danez biotz - ikara aundiko jatortasuna dauka. Bere erraietan jai-arau ugariak eta udabarriko berbizkundera bizitasuna daukaz».

Kaukaso'ko dantza batzui buruz, Alexander Bland'ek «The observer»en beste au idazten eban:

«Georgia'ko gizonen dantzea, Euskotarranagaz eta Eskozia'tarranagaz alkartuta dago.

Gizonak oin, berna ta ankakaz artazika, morapilloka, bizkortasun aundiaz, milla jira-bira berarizko egiten dabez.



Dantza ikusgarri oneik egaztien ar-egazkada ta ar-gosezko eragiñen antzekoak dira.

Ibilketak, beatz-erpañetan zeremoni-arauz antzestuaz, egazti-egazka ar-gosez egiñak dira.

Guzti orreik oillar-dantzea goratzen daukue!

Atzerritarren eritxi-billa ibilli barik, emen daukagu Arizmendi' tar Maria Elena.

Donosti'ko LA VOZ DE ESPAÑA'n, 1965'eko epaillaren 13'an gai orretaz eta Ituren'go aratozteaz azalduaz auxe esan eban:

«Ituren'go dantzak esangura argia dauke. Antza danez, dantzariak euren buruan daroezan oillarraren lurra-egakiak erna-indarraren irudi berezia dauke».

Orduan, aitatu doguzan idazlearen artean ba-dago eretxiaren bateratasuna.

Mendexe'ren eritxiaren adierazpena au izan leiteke: Aureskuak

iru zati ditiu: Aupadea, zemaia, zortziko.

Aupadan, burukide dantzari biak aurrez-aurre agertzen dira, alde bietatik alkarrari zemaika begira, ibillaldiak aldatuez.

Gero burrukea esaten jakona dator: Lenengo oin eskoiaz eskumaldetik aurrerantz, atzera ta aurrera iru edo lau bider, oinkada erdiak alde batera ta bestera, soiña bizkor eta dardaratsu alboraturik. Eta triska-jauzka bategaz amaitzen da burrukea.

Ondoren, zortziko-dantzea egiten da. Bere neurria, beteagoa, alaiagoa, astiroagoa dogu eta bere oinkada, triskada ta jauzker, beste dantzen lako bardiña da, ikuslearen aurrean irabaztearen garai-kunde agertu guraz.

*

Gaurko euskal-dantzak, dantzarien gorputz-gaitasun obeakaz antolatzen dirala ikusten dogu eta taldeetako irakaskintza be lengo aldietakoa baiño ohea da.

Neurketa neurrituz egiten dabe dantza eta bizkortasinen erakuspene aundia izaten da.

*

Talde batzun-eta besteen artean, orregaitño, legedi edo araudi bardiñik ez da agiri.

Alderdi baten eta bestean auresku-dantzea ikusi ezker, arintasuna ta berezko erreztasuna galdu egin dabela uste dogu.

Auresku-dantzea «Balet» izatera joaku eta aureskularitza ez dala gizonentzat egokioa dirudi...

Aureskua orain dantzan egiten dan lez ikusi ezker, ezin geinke gogoratu Mendexa'ko baserriatarraren eritxia. Eta dantzak erri bakoitzak daukan mezu berezia agertu bear dabe.

Ez uste izan plazako ta antzokietako dantzak bardiñak diranik. Edozelan be, aureskuak ez dagiala galdu enparatsetako tankera jatorrik.

Errege, aundiki ta sendi ospetsuen oin-oialez estalduta dagozen areto ta gela ederretan, minue bat lez dantzatzeko ez zan jaiogure aureskua.

LETONA'k

EUSKALERRIKO

OITURA ZAARRAK

LIBURUAK

Erri bakoitzak dauz bere oiturak.
Euskalerrriak be bereak dauz.

Ikustea baiño ez dago Azkue, Aranzadi, Barandiaran, Julio Caro Baroja, Satrustegi, Iztueta, eta beste idazle askoren liburuak, ondo eta sakon idatziak.

Eta jakiña! euskeraz eta gaztelaniaz iclatzita.

EUSKERAZ

Baiña, bear ba'cla, gai onetan uts bat dogu: gure idazlan oneik sarritan euskaldun barrientzat euskera ederregian idatzita aurkitzen dira, eta erderaz irakurri bearra izaten dabe.

Au dala eta, aal danik eta euskera errezanean idaztea pentsatu dot, euskera zale barri oneik gaztelania itzi eta gure izkuntzan irakurri dagien.

ZENBAT?

Umeak etxeko eta gizarteko poza diva.

Nork ez clautso ume bateri irribarre bat egiten?

Edozeinck.

Beraz, umeak gurasoen poza eta ametsa diva.

Asko edo gitxi, senar-emazte danak nai dabez.

Baiña onetan, urteak zear, aldakuntza aundia izan da: leen gaur baiño seme geiago ekartzen zan. Gaur geienak bat edo bi baiño ez dabez nai; irugarrena sarritan ez da nai izaten.

Zergaitik ete da? Asmatu egizuz gaueko pentsaera onen zergaitiak.

r

POZGARRIA

Seme bako senar-emazteak be ba-dira.

Ezkondurriak ba'dira, ez dautse ardura.

Baiña ezkontzan urte asko badaroez, jarrituta bizi clira: seme barik ez dabe zorionik.

Seme edo alaba barri bat nai danean, aurdunaldia be pozgarri aldia izaten da.

Batzutan au neketsua be izaten cia, baiña errez eroaten da.

Onela danean, 9 illabeteak labur egiten dira.

9 ILLEBETEA

Baiña aurdunaldia 9 illabeteak etc da?

Onetaz Euskalerrriean pentsaera berezi bat dogu.

Amarik geienentzat aurdunaldiaren neurria bederatzi illabete da; beste batzuentzat, osterera, bederatzi illargi bete. Eta ona emen oraindik gaur ama askok jaiotza egunaz dabezan eztabaidan susterra.

Egun au atzeratzen danean, 9 illargi beteak izan ez diralako clala esaten dabe.

ILLARGIA

Euskaldunentzat illargiak ba-dauz beste eragin batzuk be onetan: esate baterako, umerik geineak gauez jaiotzen dira.

Egunez jaiotzen danak bizitza laburra ci dau: ez da 60 urtetik igarotzen.

Beraz, gauez jaiotzea * * * kua ez ba'da beintzat.

Barikua sorgiñen eguna da, eta oneik sarritan jaiotze barrici kalte aundiak egiten dautseez.

Au dala eta, obeto da beste edozein egunetan jaiotze; onela umeak sorgiñen arrisku barik jaiotze dira eta.

MUTILLA ALA NESKEA

Aurdunaldiaz ba-dira Euskalerrriean beste pentsaera berezi batzuk be.

Esate baterako; ume sortu barriaren sexuaz.

Aurretiz jakin nai danean, amak sabelcko miiiak aztertu bear dauz; muña eskuma aldean ba'dau, semea izango da; ezker aldean ba'dau, osterera, alaba.

Sarritan arlo au dala eta, gurasoak oso arduratuta ibiltzen di ra.

Leenengoa mutilla izatea nai dabe askotan: onela aitaren abizenak jarraipen bat dau eta etxeko oinordea be beta izaten da.

Eztabaida eta ardura orietatik urtetzeko, sabeleko miiñak, eskilara igokerak eta gorputzaren ibilkuneak eta abar aztertzen dira.

* *

NONDIK?

Arazo au leenengo semea izatean izaten da batez be.

Ostean beste batzuk izaten dabez. Esate baterako: Zelan semeei amaren egoera eta jaiotza barria azaldu, eta abar.

Onetan azalpen ezagun batzuk doguz: batzutan Paris'tik edo Bilbo'tik ekarri dabela esaten dautsoe; beste batzutan merkatuan erosi dabela edo aita feriara joan danean ekarri dauala, eta abar, eta abar.

Beste batzutan, arazo au azaltzeko, aitaren lana be kontuan artzen da: aita mendian edo kanteran lan egiten ba'dau, menditik edo kantaratik ekarri dauala esaten dautsee.

IKUSTERA

Guzti au seriotasun aundienagaz egiten dabe.

Dirudianeaz, egia jakitea, txarra eta oben bidea da.

Ama bera ikustera be ez dira joaten semeak.

Ume jaiotze barria inork ikusi nai ba'dau, logelatik kanpora ateratzen dabe; edo logelan ikustekotan, ezin cia baltzcc jantzita sartu.

Onela egin ezker, il zorian jartzen da umea.

LAGUNTZAK

Onein antzerako beste pentsaera asko clogu cuskalclunen artean.

Baiña ez pentsaerak bakarrik, egiak ere bai.

Aztertu ostantzean orain urte batzuetako jaiotzak.

Euskalerrriko emakumeak aurdunaldian atsedean gitxi eben: geienak soloan eta etxean, bietan, lan egiten eben.

Bederatzi illabete onela igaro ostean, erditze eguna ez zan atseingarria.

Ez euken ezertarako gertakizunik.

Orrez gainera, geienetan ez eben osagille laguntzarik: erri bakoitzean bi edo iru emagin ziran.

Erriko atsorik zaarrenetarikoak ziran, eta ez euken ez kulturarik ez garbitasunik.

Egoera onetan erditzen eben euskal emakumeak.

Jaiotze dala auzoari adierazteko, mutilla ba'zan, iru kanpaka jaiotze ziran; neska ba'zan, osterera, bi.

EUSKERA IDATZIA

AGOZ ETORRIA

Zenbatetan entzuten dogun, gure izkuntzea zarra ta Europa'n zarrena dala! Eta egia da. Baiña izkuntza idatzi lez atzokoa ta naikoa urria dala ezin ukatu.

Zarrakandik agoz etorria dogu ba euskerea, eta agoz etorria izan arren, antza dagoenez, beste izkuntza batzuk baiño gitxiago aldatuta etorria. Latiñak, esaterako, naikoa ezaguna dogun kondaira onetan, euske-reak baiño askoz aldakuntza geiago izan dau eta ori izkuntza idatzia izan dala.

Onetan be, euskaldunak «berbako» gizonak garala agertzen dogu.

x

LENENGO ITZ IDATZIAK

Gaur arte ziur dakigunez, lenengo itz euskaldun idatziak Akitania'n agertu ziran, il-obietako idazkietan.

Ez dira esaldiak, itzak baiño. Esaldiak latinez dagoz, baiña izenak euskeraz: sembe, inko, belasko, cison, eneko...

Idazki oneik Jesus jaio baiño urte batzuk lenago-koak dira eta urte areitan an euskera berba egiten zala adierazten daukue.

Bi milla urte inguru dira ba gaur irakurri daike- guzan lenengo euskal-itzak idatzi zirala.

IDAZKARI-ITZAK

Geroago erdi-arroaren barrenean eta eskribauen idazkietan, euskal-izenak ugari agertzen dira, batez be Naparroa-aldean. Onetan oraindiño billaketa-lan aundia dago egiteko.

Era bitako itzak dira batez be: Toki-izenak eta giza-izenak.

Toki-izenak edo toponimoak, saldu-erosietan batez be erabilten ziran eta, naizta agiriak latinez idatziak izan, edo erroma-antzez, soloen eta eta errien izenak euskeraz idazten ziran, gaur be olantxe egiten da ta.


Giza-izenak eta abizenak edo antroponimoak be ugari agertzen dira olako agirietan.

DONEMILIANE'N

Orain egun batzuk dirala eta igande arratsalde baten Donemiliane'ra ostera ariña egin genduan.

Goiko edo Suso lekaidetxea ikertu genduan. Ango barri-emoilleak zeatz eta egokiro azaldu euskuzan. gauzak. Antxe, ain zuzen, idatzi ziran euskeraz lenengo esaldiak. Liburu aundien lerro-artean eta orri-bazterretan, latinezko esaldien esangurea agertzeko euskeraz eta erderaz jarri ebezan esaldi batzuk. Euskeraz bi. Guck ajutu cz dogu eta Ixioki. Esaldi oneik orduko euskeldunentzat argiak ziran, erdereza baiño argi- goak, baiña gutzat ez dira ain argiak.

Millagarren urtean esaldi onein «oroitzapenetan» (?) arri idatzi bat ipiñi eban Euskaltzaindiak Beko edo Yuso Lekaidetxean. «Oroitzapenetan» itz ori be ez da izango ulerterreza edo egokia euskaldun jat- orrentzat. Geiagok ulertzekoa ta zuzena izango zan «oroipenez» idatzi ba'eben, baiña emen be jakitunen jakituriak...



Donemiliane'n Yuso edo Goiko. Lekaide-etxea.
Euskera idatziaren sorlekua

EMERY PICAUD

Gogoangarria da, baita, amabigarren gizaldian Emery Picaud Gotzainak itzi euskun iztegitxua. Gero euskaldunak basatiak dirala eta alakoak esango ditu, baiña orduko gure oiturak eta euskerea gogoratzen daukuz eta ongari izan jaku.

y

ETXEPARE

Euskera idatziaren kondairan garrantzi aundikoa dogu Etxeparre Benaparroa'tarra. Onek 1545'ean lenengo euskal liburuia idatzi euskun. Olerki-liburu ederra ta gogoangarria, «Arcipreste de Hita»ren LIBRO DEL BUEN AMOR'en antzera, maite-miñez eta gordinkeriz jantzia.

Etxepare'k ondo daki lenengoa izatearen garrantzia eta orretzaz arrotu be egiten da.

MIKOLETA TA LARRAMENDI

Euskera basatia zala eta gramatikan sartzeko lakoa be ez zala, esan eta esan ebiltzan gure arerioak.

Eta berandu baiño ez ba'da be, egin ziran lenengo gramatikak, Mikoleta bizkaitarra ta Larramendi gipuzkoarra egille zirala, batez be Larramendi'rena joten da lenengo gramatika lez: EL IMPOSIBLE VENCIDO edo (gero Orixe aundiak euskeratuko dauan lez) EZIÑA EGIÑA.

GURE LITERATUA

Arrezkero, euskerea idatzi-maillan zabaldu dan ezkero, izan doguz liburuak, ez beste izkuntza batzu- tako beste, baiño ainbat. Onaindia'k bere zazpi libu- ruetan, lan osoa amaitzen dauanean, agertu dauan lez.

Euskera idatzia zabaltzeak, izkuntza onen bizia luzarokoa izango dala adierazten dau. Izkuntzaren urre-aldia oraindiño etorteko daukagu.

OLAZAR'tar Martin'ek

ANDONI DEUNA BIZKAITARRA?

JATORRIZ

Padua'ko Andoni deunak Euskalerrria'gaz zer-ikusi bereziak daukaz eta batzuk ba-diño odolez be, zerbait beintzat euskalduna -zala.

Portugal-darra zan jaiotzaz, baiña bere amaren ama euskalduna ei zan.

Pio XII'ak egin eban Portugal'eko zaindari eta Eleizako Irakasle.

IZLARIA

Bere berbaldiak eta irakatsiak adimenbako piztiak be entzuten ei ebezan.

LORETXUAK idaztarian edesten danez, bein baten Rimini'n egoala, ango ziñausle edo «hereje»ak egizko sinismenaren argitara ta onoinenaren ontasun-bidera biurtu gura ebazan, baiña ez eustsoen entzuten.

Orduan, goi-argi ta indarrez, ibai ta itxaso-ertzetan jesarrita, asi ei zan esaten: Ibai, erreka ta itxasoko arraiñok entzun: ziñausle gaiztoak entzun gura ez daben ezkerre, zuok entzuk egizue Jainkoaren berbea».

Eta arraiñak ugari urreratu jakozan entzuteko.

* *

FERNANDO ALA ANDONI?

Juan Iñiguez de Ibarгүйen'ek bere *CRONICA GENERAL ESPAÑOLA*»

liburuan diñonez, «Aldi areitan Padua'ko Andoni, Anaidi Txikiko santua, Portugal Erreñuko Lisboa'koa jaiotzaz, Bateo-izenez Fernando, San Agustín'en Kanonikuen Lagundi'ra sartu zan, baiña Anai Txiki batzuk Marruekos'en martiri egin zirala entzun eban eta Frantzisko Deunaren lekaide-jantzia artzea erabagi eban bere nagusiarren baimena eskatuta.

San Antonio'ri eskiñita egoan lekaidetxe batera sartu zan. Laster asi zan jentea bere billa etorten eta iñork aurkitu ez egian, apaltasunez, praille guztiai, Andoni izenez deitzeko eskatu eutsen».

EUSKALERRIAN

Bere lenengo alatza, miraria, Prantzia'ko Tolosa'n egin eban.

Gero Naparroa'ko Iruña'ra (orain Pamplona esaten jako), Gipuzkoa'ko Donostia'ra eta inguruetara etorri zan.

Euskalerrian katolikuen fedetik al-denduta bizi ziran asko biurtu ta benetako federa ekarri zituan.

Isil-isilik igaro zan gizon doatsu au Bizkai'tik eta bere amama, Albina etxeko andrea, Sukarrieta errikoa zan lez, bere senideak maitekiro ikertu zi tuan.

* * *



IZARO UGARTEAN

Izaro ugarteko Frantzisko'tarren lekaide-etxean be egon zan. Lekaide-etxe au ugartean, itxaso barruan, egoan, Bermeo ta Mundaka'ren alboan.

Egun batzuk egin zituan an eta Jaungoikoaren izenean, itsu, mutu, erren, elbarri, eskumots eta beste gaiso asko osatu zituan, mirari ugari ta aundiak egiñez.

LETONA'k

BILLA

.eure billa nabil.
Munduko edertasunak bei tuta gero
Itxi begiak.
Izan leiteke olan obeto ikusi
)an bikañena.

iiza antza gaztiak
rereganatzen gaitu
rañia orixe bakarrik ezta gauza asko.
ioguan daukoz gauza ikusi eziñak:
rarru garrantzi, ondasun,
naitetasuna, bai dira obiak.

*

Geure gogo ileziña, mundu onetan,
Aragizko ontzian aurkitzen da.
Inguratzen gaituzan gauza guztiak,
Gogo begietan dira ikurrak.
Bide ertzetan dagozan lora oriak
Jauna, urre gorritzko txindiak,
Sakabanatzen dozuz geure onetan,
Zeure bezuzak dira, ene Jauna.

* * *

Emetik igaro da...
dana jantzita bere edertasunez geratu
da.

Zeure txistuaz deitu
Artzain On orrek. Biztu ta alai benetan,
Usain ederrez, Zeure atzian gaituzuz
ariñetan.
Zeureganantza nua, gabaz ta egunez
¿Noiz ikusiko zaitut?
Aurrera, beti aurrera lañetan...
Iñok pez ikusten enaunian
Aurkituko zaitut, ene Jauna!

UTARSUS

KONTU - KONTARI

OTSOA TA LUKIA

ILLARGI-OPILLA

Gari-jotzailleak aparitan egozala, otsoa ta lukia, tipi-tapa, Lizardi etxe ondora joiazan.
Illargi bete betea egoan dir-dai; eta aren irudia, opil biribilla zirudiala,
Lizardi'ko-ur-askan egoan.

Luki, Lukito, zelan jan neinke ori beko opil eder ori?, —itandu eutson otsoak—.

Askako ur guztia edan..., eta olantxe... !

Asi zan, ba, otso ori ura edan eta edan, zurru ta purru edaten, bai !

Baiño laster asi jakon, edaten ebana atzeko zulotik urtetan.

Lukiak, orduan, burutxa bat artu, ta eperdiko zuloa itxi eutson.

Noizbait bear, eta ustu eban azkenik otso orrek askako ur guztia.

—Ez dozu, ba, esan, Lukito, bertoko ur ori edanda, opil eder a iruntsiko nebala?

Ez estutu, Otsoko, uste barik iruntsia izango dozu, bai ziur!

Alantxe izango da bai, ene sabel au bete beterik daukot-eta... !

* *

LIZARDI'KO GATZATUA

Alako batean, illargiaren argitan, gatzatua ikusi eban Lukiak Lizardiko leio
gaiñean, eta badiraotso otsoari:

Otsoko, aurrera jarraitzeko be, barru ori ustu egin bearko dozu onezkero, ezta...?

—Bai, Lukito, bai...! Astun-astun daukot-eta...!

Lukik, orduan, buztanpeko burutzea kendu..., eta zar-zar erion otsoari soloan zear
bere barruko ur zikiñak.

Eta Lukiak deadar egin eutsen aparitan egozan gari-jotzailleai:

—Eup, gizonok! Urak daroatsuez larrañeiko gariak!

Au entzunik, gizonok altzau, eta otso ori jo ta jo erabillen euren makillakaz. Lukiak, bitartean`
leiora abiatu, maats adarretan gora igon, ta gatzatua jan da jan ziarduan.

* * *

EZTABAIDAKA

Janaldia egin, eta otsoarengana etorri zan gero Lukia bere ago-ingurua gatzatu-tantaz
zuri-zuri eukala. Aieneka egoan zorigaiztoko otsoa:

Ai, Luki, Lukito...!

Zer..., Otsoko...?

Azurak auts eginda nagoala, Lukito...!

Baita neu bere, Otsoko!

—Niri azur guztiak txiki-txiki egin daustez!

—Neuk, barriz, garunak agiri-agirian daukadaz. Begira...!

Txarrago nago ni.

Ez dot uste!

Gura dozu urrengo datorrenari itandu..., eta okerren dagoana besteak lepoan eroatea?

Bai..., orixe!

* * *

LUKIA, ARRELEPO

Kukupraka eritxon gizon bat aurkitu eben, andik arin; eta Lukik itandu eutson:

—Nor dago okerren, Kukupraka, bere azurak makilka apurtuta daukazana, ala garunak agirian
dituana.

Txarto dago, Lukito, —Kukuprakak erantzun, —txarto azur
autsiduna, baiña askoz txarrago, ziur, garunak agirian dituana.

Luki, orduan, gizonari agur eginda, lepora igo jakon otsoari:

—Arre, Otsoko, arre... —esanez.

Urkiolako pagadian eukan Luki orrek bere zuloa. Ara eldu, ta otsoaren lepotik
zapart eginda, bere zilora sartu zan Luki maltzurra.

IBARRA, KAPITANA

GOI-MEXIKO

Goi-Mexiko lurraldea, eta baita aren gaineko Arizona, Texas, Nevada ta Nueva-Mexiko beste lurraldeak euskaldun mutillak aurkitu, aztertu ta berendu ebezen.

Durango'ko seme Ibarra'tarrak asi ziran lan orretan.

Patxi Ibarra'ri buruz diardugu lan onetan.

Osaba bi eukazan Mexiko'n, eta oneik deitu eutsoenango lurretara euren loba gazteari.

Diego ta Migel, Patxi'ren osabak eurakandu ebazan, beste euskaldunen lagun, Zacatecas, eta aren inguruko ainbat meatoki. Meatoki oneik zirala-ta, dirudun aundi biurtu ziran biok.

Oneik berotu eben euren loba Patxi, ta lur barrien billa bultzatu, naikoa diru, abere ta lagunez ornidu ondoren.

* * *

LUR BARRIEN BILLA

Amasei urte bakarrik eukazan Patxi'k bere ibillaldiak asi zutuanean. Eta arri-tzekoak dira orren gaztea izan arren, beraguz eroiazan

gudari zarrak eutsoezan begirunea ta itzala.

Ogei urtetan ibilli zan, batera ta bestera; mendi eta zelaiz, ibai eta basamortuz.

Basamortuan zear joiala, jan eta edari guztiak amaitu jakozan; eta beragaz eroiazan mando ta zaldiak il bearrean aurkitu zan, arein okela ta odolaz, gose-egarriak asezteko.

Beste bein, bost milla metroko mendi tontorra gainditu ta zearkatu bear izan eban. Eta berton itxi bear izan ebazan ainbat zaldi, edurrez eta leiz gogortuta.

* * *

JENDATZAILLE

Mexiko osoko basatienak ziran ango inditarrak. Eta sarri eraso eutsoen Ibarra'ri baita iñoiz zauritu be. Baiña esku on eta biguneko gizona zanez, ba ekian zelan bereganandu ango jende basatiak.

Ardi, txarri, mando ta zaldi-talde aundiak eroiazan beragaz, baita ortukari ta Barau-aziak be ugari; eta bertoko bizilagunai banandu eutsezan. Zidar eta berunezko meatz asko topa ebazan, eta

areik urratu ta lantzeko eskubidea be emon eutsoen.

Erri asko ta asko eraiki ebazan bizilagun orreikaz; eta erritar biurtu ziran, orrelan, len alderrai edo ara ta ona ebiltzen basatiak. Aita Zumarraga'k, Mexiko'ko goigotzainak, (Durango'tarra au be), emoniko praileak eroiazan berarekin, eta oneik ziarduen basatiak eskolatzen eta kristautzen.

*

«NUEVA VIZCAYA»

Izen ori emon eutson Ibarra'k beronek jendatutako lurraldeari; eta Durango izendatu eban, berton eraikitako uriburua.

Bizkai'ko armarri edo eskutu berbera bere ipiñi eutson: Gernika'ko aretxa, ta otso bi aren Barriaren alderik alde.

Ogei ta amasei urte bakarrik eukazan Ibarra'tar Patxi, il zanean. Baiña, pozik egon eikean Durango'tar gaztea. España osoa baiño lurralde zabalagoa irabazi ta sendatu eban.

URKIOLA'k

LOIOLA'KO BATZARRA (1979 Jorraitaren 19-20)

EUSKERAZAINTZA'k (Euskeraren Erri-Akademia'k) bere batzar nagusia egin dau Loiola'n.

Pazko-astea zan, irakasleak eta ikasleak opor-egunetan dagozan ezker, etorteko era ohea izan dagien. Ara urreratu giñan arduraz eta lan-gogoz.

Ba-ziran arterlu-bearreko arazo batzuk, iru arlotan batez be: Erakunde bera, lan egiteko bide bat Uak azertu-bearra eta idazkereari ta Itz-jokoari egindako azter-lan batzuk onartzea.

Erakundearen zuzendaritzak be bear eban sendotzea, orain arte izan dituan arduradunak aldirakoak izan dira-ta.

* *

EGITARAUA

jorraitaren emeretzian eta goizeko amarretan asi genduan batzarra, aldirako zuzendari zan eta lerro oneik izenpetzen dituanaren itzaldiaz.

Gero egun orretan, goizean taldeen azterpena egin genduan eta arratsaldean idazkereari buruz egindako lana aztertzea.

Urrengo egunean, goizean Itz-jokoa edo deklinabidea azertu genduan eta arratsaldean Albo-Erakun-

(leak gertatuta eukan A raudia azertu eta arduradunak aukeratu.

* * *

IDAZKEREA

Idazleak, gugaz alkartzen diranak be bai, idazkeraz ez datoz batera. Arau batzuk bearrezkoak dira ba, alkartasuna sortzeko.

Arau onein elburua ez da izango idazle guztiak beartzea, bide batzuk urratzea ta argi-bide batzuk emotea baiño.

Bateratze-taldeak, kardaberaz'tarren lan batzuk oiñarri dirala, gertatu dauan bidea agertu eban taldearen izenean Gaztañaga'tar Jesus'ek eta an artutako erabagiak laster liburuzka baten argitaratuko dira.

* *

ITZ-JOKOA

Talde orrek gertatuta eukan itz-jokoari buruz lan bat eta Orbegozo'tar Jose A gustin'ek eta Gaztañaga'k aurkeztu eban au be.

Izan ziran eztabaida batzuk eta illun geratzen ziran arauak euskerazain osoak ebazteko geratu ziran.

Beste liburuzka baten argitaratuko dira oneik be.

* *

TALDEAK

Olako erakundeetan lan-taldeak garrantzi aundia izaten dabe. Lendik eratuta egozan talde oneik baiña bakoitxak lau urterako eginbidea aurkeztu eban batzar negusira, talde txikietan lan eginda gero.

Erakundearen lan-taldeak oneik dira: Euskera - Lantze, Irakasletza, Ikas - liburugintza, Antzerkigilletza, Bertsolaritza, Olerkaritza, Bateratzailetza, Idazletza, Irratilaritza, Itzultzailetza, Argitaldaritza ta Albo-erakunde.

Ordubeteko lana egin ondoren, talde bakoitxak bere lanbidea ekarri eban eta lau urtean zer egiteko ustea eban azaldu eban.

* *

AUTESKUNDEA

Arratsaldean, bigarren egunez, erakundearen aurdia aurkeztu eban Latiegi'tar Bixente'k eta gauza batzuk aldatu ondoren onartua izan zan.

Urrengo, euskerazainen artean arduradunak aukeratu genduzan eta oneik izan ziran izendatuak: Akesolo'tar Lino, Lendakaria; Olazar'tar Martin, Lendakari-ordea; Orbegozo'tar Jose A gustin, idazkaria; Gaztañaga'tar Jesus, Idazkari-ordea. Albo-erakunde guztiaren ardurapean geratzen da oraingoz diru-zaintza.


* *

EUSKERAZAINAK

Lan-talde bakoitzean euskerazain bat da arduradun eta kontu-emoille. Euskerazain osoa esan gura dogu.

Euskerazainak lautarikoak izango dira: osoak, Deduzkoak, Lankideak, albokoak. Guzti oneik izango dabe Lendakaria aukeratzean eskubidea ta azken-itza.

OLAZAR'tar M'ek



EUSKERAZALEAK

Ez da oitura barria omenaldiak egitea.
Omenaldiak bear dira. Ba-dagoz txaloak eta goratzarreak irabazi dituen gizonak.
Eta ondo egiten ba'dira, ondo dagoz.

Baiña ba-dauke omenaldiak be euren arriskua.
Arrisku au, irabazi ez daunari omen egitea da, esaterako orain urte
batzuk Gernika'ko agintariak Franco'ri egin eutsoena. Orain zuzenketea egin bear izan da.

* * *

Olako omenaldiak ez dira sortzen erritik, urdail eskertsuak egiñak izaten dira.
Mesedeak artu dabez, izen ona ta dirua lortu dabez, eta jauntxoa
goratu bearra asmatzen dabe barru-barruan.
Eta bakoitxak daukan esker on ori, urdaillaren esker on ori, agertzeko erriari
egiten dautsoe dei. Erri leuna, erri zea, sarritan uste onez, olako jokoan sartzen da.

* * *

Erria orrelan erabiltea saldukeria izaten da. Gogoratu barriro
Gernika. Munduaren aurrean, zeaztasunak jakiteko erarik ez dauan gizartearen
aurrean, esker oneko lez agertzen da. Zori onez, azkenean egiak argi egin dau.

* * *

Omenaldiak egiteko, kontuz ibilli bearra dago ba. Ondo aztertu nori omen egin, nori
esker ona agertu, nori txaloak jo, eta nor dan jakin eta gero, baita,
zergaitik ori egin be gogoan artu bear.


* * *

Naparroa'ko Aldundirantza begiratzen ba'dogu, an izan dan omenaldi bat
aztertu ezkeru, ez dot uste onartzekoa ta irabazia danik, omen egiten
dautsoenen ustez gauza on bat egitea naikoa ez ba'da beintzat.
Omenaldiakaz, kontuz !

OLAZAR'tar MARTIN' ek

IZKI-NASTEAREN ERANTZUNA

A	P	O	K	U	L	L	O	R	A	Z	I	S	T	E
J	Q	L	A	S	D	O	T	X	U	T	X	A	K	A
E	R	R	A	M	U	J	O	S	T	U	B	I	M	P
B	R	E	I	S	B	I	G	A	A	R	R	R	O	D
O	A	T	E	X	A	U	A	L	R	I	Ñ	P	R	U
I	M	E	D	A	E	M	E	L	K	U	I	E	R	B
T	S	O	T	X	D	A	T	I	I	M	S	U	L	L
U	I	P	G	I	U	X	Ñ	O	A	R	O	K	E	L
Z	U	T	E	E	D	O	S	I	B	R	A	Z	T	T
G	M	A	B	L	L	I	A	B	E	G	E	A	T	Z
O	I	Ñ	E	L	L	B	E	T	Z	I	Ñ	D	K	I



70 urte Bizkaiari laguntzen



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL DE BILBAO**

ONDO ERANTZUTEN DAU